

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### NAVARIDASKO UDALA

#### **Jendaurrean jartzea trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2018ko errolda eta zerga kobratzeko moduan jartzea**

Navaridasko trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga 2018an ordaindu behar dutenen errolda behin-behinean onartu ondoren, espedientea hamabost egun baliodunez egongo da jendaurrean, udal idazkaritzan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, espedientea behin betiko onartutzat joko da.

Borondatezko aldiko dirubilketa apirilaren 1etik maiatzaren 31ra izango da, egun biak barne.

Borondatezko aldia amaituta, ordaindu gabeko kuotak premiamenduko betearazte bidean sartuko dira, eta legez ezarritako errekareruak, eta, hala badagokio, berandutze korrituak eta kostuak sortuko dituzte.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Navaridas, 2018ko martxoaren 13a

*Alkatea*

**MIGUEL ÁNGEL FERNÁNDEZ GONZÁLEZ**